



ASTIALDI SAREA

16

**IBILBIDE HAUR,
NERABE ETA
GAZTEEN ASTIALDI
HEZIGARRIKO
ZERBITZUETAN
AURRERA
EGITEKO.**

**EUSKADI 2024-2028
EUSKO LEGEBILTZARRERAKO
HAUTESKUNDEAK 2024.**

ASTIALDI SAREA ELKARTEA

16

**ITINERARIOS PARA
AVANZAR EN LOS
SERVICIOS DE
OCIO EDUCATIVO
CON INFANCIA,
ADOLESCENCIA Y
JUVENTUD.**

**EUSKADI 2024-2028
ELECCIONES PARLAMENTO
VASCO 2024.**

ASTIALDI SAREA ELKARTEA

astialdisarea.eus | bulegoa@astialdisarea.eus

16

**IBILBIDE HAUR,
NERABE ETA
GAZTEEN ASTIALDI
HEZIGARRIKO
ZERBITZUETAN
AURRERA
EGITEKO.**

**EUSKADI 2024-2028
EUSKO LEGEBILTZARRERAKO
HAUTESKUNDEAK 2024.**

ASTIALDI SAREA ELKARTEA

16

**ITINERARIOS PARA
AVANZAR EN LOS
SERVICIOS DE
OCIO EDUCATIVO
CON INFANCIA,
ADOLESCENCIA Y
JUVENTUD.**

**EUSKADI 2024-2028
ELECCIONES PARLAMENTO
VASCO 2024.**

ASTIALDI SAREA ELKARTEA

ASTIALDI SAREA ELKARTEA

Irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeen sare bat gara, eta elkartearen figura juridikoa dugu. Hau da gure xedea: astialdi hezigarriko hezkuntza bultzatu eta indartzea EAEn.

14 erakunde gara: astialdi-taldeen 6 sare, astialdi hezigarriko eragileen 7 prestakuntza-eskola eta sustapenerako erakunde 1. Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban jarduten dugu. Taldeen sare horietan sartzendira, besteak beste, beren proiektuak EAEko auzo eta udalerrietan garatzen dituzten 80 erakunde. Proiektuen eragileak 10 hezkuntza-erronka hauek dira: inklusioa, babesa eta eskubide sozialak, euskal komunitatea, hezkuntza-feminismoa, bizi-modu osasungarria, gizarte digitala, zientzia, teknologia, ezagutza eta berrikuntza, ekintzailetza eta enplegarritasuna, balioak, klimaren inguruko kontzientzia, garapen komunitarioa, herriarren partaidetza, boluntariora, aisia, kultura eta arteak.

Astialdi hezigarria haurtzaroko, nerabezaroko eta gaztaroko eskubide gisa eta eskubideak bermatzeko tresna gisa.

Astialdi hezigarrian, zenbait motatako proiektuak daude: hezkuntza-eragileen prestakuntza-eskolen ekarpenak; jarduerak urte guztian, eta ez oporraldietan bakarrik, egiten dituzten kolektiboak eta prozesuak, zeinak lotzen baitaizkie eskolari, auzo-elkarteei eta auzoetako eragileei, komunitatea garatzeko. Boluntarioak daude. Ludotekak, eta gaztegunek, jarduera-zentroak, hezkuntza-esperientziak, udaleku eta kanpamenduak, eskolaz kanpoko jarduerak, hiriko espazioak, arte, berrikuntza, zientzia eta kiroltan espezializatutako proiektuak, trukeak... Ekintza hezitzaileko guneak. EAEko administrazio publikoek (udalak, foru-aldundiak eta Eusko Jaurlaritza) aintzatetsiak eta finantzatuak.

ASTIALDI SAREA ELKARTEA

Somos una red de entidades sin ánimo de lucro, de iniciativa social, cuya figura jurídica es asociación. Nuestra misión: impulsar y fortalecer la educación en el tiempo libre / el ocio educativo en la CAE.

Somos 14 entidades: 6 redes de grupos de tiempo libre, 7 escuelas de formación de agentes del ocio educativo, 1 entidad para la promoción. En Bizkaia, Gipuzkoa, Araba. Las redes de grupos integran a 80 entidades que desarrollan sus proyectos en barrios y municipios de la CAPV. El motor de los proyectos: 10 desafíos educativos: Inclusión, protección y derechos sociales, comunidad vasca, feminismo educativo, vida saludable. sociedad digital, ciencia, tecnología, conocimiento e innovación, e emprendimiento y empleabilidad, valores, conciencia climática, desarrollo comunitario, participación ciudadana, voluntariado, ocio, cultura y artes.

El ocio educativo como derecho de la infancia, adolescencia y juventud, y como instrumento para la garantía de derechos.

El tiempo libre educativo son múltiples proyectos que tienen formas diversas: son las aportaciones de escuelas de formación de los agentes educativos, son colectivos y procesos, con actividades a lo largo de todo el año, y no solo en periodos vacacionales, conectados a la escuela, a las asociaciones de los barrios y sus agentes, en el desarrollo comunitario. Con las personas voluntarias. Son ludotecas, gaztegunes, centros de actividades, experiencias educativas, colonias y campamentos, actividades extraescolares, espacios urbanos, proyectos especializados en arte, innovación, ciencia, tecnología, deportivos, intercambios... Espacios de acción educadora. Reconocidos y financiados por las administraciones públicas vascas (Ayuntamientos, Diputaciones, Gobierno Vasco).

Eragile sozial, kultural eta hezkuntzakoei eta administrazio publikoei (EAEkoak, foralak eta tokikoak) lotuak. SAREEN SAREA Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen sarean sartuta daude, baita Euskadiko ELKARRIZKETA ZIBILERAKOMAHAIAN ere.

Conectados a los agentes sociales, culturales, educativos, a las administraciones públicas: vascas, forales, locales. Integrados en SAREEN SAREA, red de organizaciones del tercer sector social de Euskadi. Y en la MESA DE DIÁLOGO CIVIL de Euskadi.

ASTIALDI HEZIGARRIA AUZOETAN

ASTIALDI HEZIGARRIA SUSTATZEKO 2030 EUSKAL ESTRATEGIAK (Eusko Jaurlaritza) denbora libreko hezkuntzaren eta egungo trantsizio-testuinguruan (soziodemografikoa, ekologikoa eta digitala) astialdi hezigarrikotaldeak indartzearen alde egindu.

- a. Herrialdeak gizarte-ekimeneko astialdi hezigarriarekin dituen konpromisoak kokatzen ditu. Astialdi hori lotuta dago Gazteriaren Legearen, Haurren eta Nerabeen Legearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren Legearen garapenarekin eta autonomia-erkidegoko eta Euskadiko 2030 agendako gainerako politika sozial, kultural eta hezkuntzakoekin: herrialde, lurralde, udalerri eta auzo mailan.
- b. Aintzatesten du gizarte-ekimenek eta boluntarioek astialdi hezigarriko proiektuen lidergoan duten papera, erantzunkidetasunean oinarritua. Ikuspegi komunitarioa du, eta etengabe berritzen eta eguneratzen da, kalitatezko erantzuna emateko hezkuntza-erronkei. Orobat aintzatesten du pertsonen beren bizi-ibilbideetan ematen zaien laguntza eta babesa.
- c. Astialdi hezigarriak pertsonen eta komunitateen egiten dizkien ekarpenak identifikatzen ditu; ekarpen horiek hirugarren sektore sozialeko gainerako eragileekiko, eragile sozial, hezkuntzako eta kulturekiko eta administrazio publikoekiko lankidetzak jarraituan egiten dira, lankidetzak publiko eta sozialaren testuinguruan.

ASTIALDI HEZIGARRIA AUZOETAN

La ESTRATÉGIA VASCA 2030 PARA EL IMPULSO DE LA EDUCACIÓN EN EL TIEMPO LIBRE, (Gobierno Vasco), apuesta por la educación en el tiempo libre y fortalecer los grupos de tiempo libre educativo en el contexto actual de transición (socio-demográfica, ecológica y digital).

- a. Sitúa los compromisos de País con el ocio educativo de iniciativa social, conectado a los desarrollos de la Ley vasca de Juventud, la Ley vasca de infancia y adolescencia, la Ley vasca de educación, y el conjunto de las políticas sociales, culturales, educativas de la comunidad vasca y la agenda vasca 2030: País, territorios, municipios y barrios.
- b. Reconoce el papel de las iniciativas sociales y de las personas voluntarias en el liderazgo de los proyectos de ocio educativo, desde la corresponsabilidad, con enfoque comunitario, en permanente innovación y actualización, para responder a los desafíos educativos con calidad, y el apoyo y acompañamiento a las personas en sus itinerarios vitales diversos.
- c. Identifica las aportaciones del ocio educativo, a las personas y las comunidades, y sus contribuciones, en cooperación fluida con el resto de los agentes del tercer sector social, los agentes sociales, educativos, culturales, sociales, y las administraciones públicas, y en clave de colaboración público-social.

d. Ibilbide estrategiko eta operatiboak ezartzen ditu zailtasun eta mehatxuei erantzuteko eta indargune eta aukerak aktibatzeke zerbitzu, proiektu, talde eta erakundeetan.

d. Marca itinerarios estratégicos y operativos para responder a las dificultades y amenazas, para activar fortalezas y oportunidades en los servicios, proyectos, grupos y entidades.

Datozen 4 urteetan astialdi hezigarriaren testuinguruan haur, nerabe eta gazteak zaintzeko lanean aurrera egiten jarraitzeko, prebentzio-, sustapen-, babes-, prestakuntza-eta partaidetza-jarduerak indartuko dira, eta, horretarako, ASTIALDI SAREAK 16 ibilbide proposatu dizkio Eusko Jaurlaritzari 2024-2028 aldirako.

Para continuar avanzando en los cuidados de la infancia, adolescencia y juventud, los próximos 4 años, desde el ocio educativo, fortaleciendo las actuaciones de prevención, promoción, protección, formación y participación, ASTIALDI SAREA plantea 16 itinerarios a Gobierno Vasco, en el periodo 2024- 2028.

Gazteriaren Legearen, Haurren eta Nerabeen Legearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren Legearen eta Eusko Jaurlaritzako sailtako sektore-politiken garapenarekin, proposatutako 16 ibilbideak eta helburuak betetzeko konpromisoa hartzen du ASTIALDI SAREAK.

Desde los desarrollos de la Ley vasca de infancia y adolescencia, de la Ley vasca de juventud., de la Ley vasca de educación y de las políticas sectoriales de los diversos departamentos de Gobierno Vasco, ASTIALDI SAREA se compromete con los 16 itinerarios y objetivos propuestos.

1. IBILBIDEA.

ASTIALDI HEZIGARRIA, BERRIKUNTZA, IKUSGAITASUNA, EZAGUTZA, IKERKETA, ARTIKULAZIOA ETA GIZARTE-EKIMENEN ERAKUNDEEI LAGUNTZA EMATEA.

Eusko Jaurlaritzaren ekintza-plana eta aurrekontua diseinatu eta kudeatzea urtero; asmo handikoa izan behar du, identifikatutako erronkei erantzuten diena.

2. IBILBIDEA.

ASTIALDI HEZIGARRIA ETA HEZKUNTZA-KOMUNITATEA.

Astialdi hezigarriko erakundeetan eta proiektuen arteko lankidetzak bultzatzea ikastetxeekin eta auzo eta udalerrietako komunitateetako gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuekin.

ITINERARIO 1.

OCIO EDUCATIVO, INNOVACION, VISIBILIDAD, CONOCIMIENTO, INVESTIGACIÓN, ARTICULACIÓN Y APOYO A LAS ENTIDADES DE INICIATIVA SOCIAL.

Diseñar y gestionar un plan de acción y presupuesto, anual, de Gobierno Vasco, ambicioso, que responde a los retos identificados.

ITINERARIO 2.

OCIO EDUCATIVO Y COMUNIDAD EDUCADORA.

Promover la cooperación entre los proyectos y las entidades de ocio educativo con los centros educativos y servicios socioeducativos de las comunidades de barrio y municipio.

3. IBILBIDEA.

ASTIALDI HEZIGARRIA, INKLUSIOA, BABESA ETA ESKUBIDE SOZIALAK.

Behar adinabaliabidebideratzea astialdi hezigarriko proiektu eta erakundeei, jarduketahoriek errazteko.

4. IBILBIDEA.

ASTIALDI HEZIGARRIA ETA EUSKAL KOMUNITATEA.

Egungo proiektuak indartzea eta astialdi hezigarriko ekimen berriak gehitzea euskal komunitatearentzako kulturaren, hizkuntzaren eta hezkuntzaren arloan.

5. IBILBIDEA.

ASTIALDI ETA FEMINISMO HEZIGARRIAK.

Indartzea astialdi hezigarrikeremuhauetan egiten dituen ekimenak: tratu- eta aukera-berdintasuna, askatasuna eta justizia, dibertsitatearen aintzatespena eta genero-estereotipoak, bazterkeria, oztopoak eta indarkeria matxistak desagerraraztea.

6. IBILBIDEA.

ASTIALDI HEZIGARRIA ETA BIZIMODU OSASUNGARRIA.

Astialdi hezigarriak bizi-estilo osasungarriak bultzatzeko eta bermatzeko ematen dituen aukerak zabaltzea: ongizate fisikoa, mentala eta soziala.

7. IBILBIDEA.

ASTIALDI HEZIGARRIA, GIZARTE DIGITALA, ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, EZAGUTZA ETA BERRIKUNTZA.

Zientziari, teknologiar, digitalizazioari, ezagutzari eta berrikuntzari buruzko eduki eta gaitasunak lantzen dituzten astialdi hezigarriko proiektu eta zerbitzuetan sakontzea.

8. IBILBIDEA.

ASTIALDI HEZIGARRIA, EKINTZAILETZA ETA ENPLEGAGARRITASUNA.

Astialdi hezigarriak eremu horretan egiten dituen ekimenak indartzea.

ITINERARIO 3.

OCIO EDUCATIVO, INCLUSIÓN, PROTECCION Y DERECHOS SOCIALES.

Dotar de recursos suficientes a los proyectos y las entidades de ocio educativo para facilitar estas actuaciones.

ITINERARIO 4.

OCIO EDUCATIVO Y COMUNIDAD VASCA.

Fortalecer los proyectos actuales y sumar nuevas iniciativas de ocio educativo en el ámbito de la cultura, la lengua, y de educación para la comunidad vasca.

ITINERARIO 5.

OCIO Y FEMINISMO EDUCATIVO.

Fortalecer las contribuciones del ocio educativo para la igualdad de trato, oportunidades, libertad y justicia, el reconocimiento de la diversidad, y para erradicar estereotipos de género, discriminación, obstáculos y violencias machistas.

ITINERARIO 6.

OCIO EDUCATIVO Y VIDA SALUDABLE.

Ampliar las oportunidades del ocio educativo para promocionar y garantizar estilos de vida saludables: bienestar físico, mental y social.

ITINERARIO 7.

OCIO EDUCATIVO, SOCIEDAD DIGITAL, CIENCIA, TECNOLOGÍA, CONOCIMIENTO E INNOVACIÓN.

Profundizar en los proyectos y servicios de ocio educativo que abordan competencias y contenidos de ciencia, tecnología, digitales, de conocimiento e innovación.

ITINERARIO 8.

OCIO EDUCATIVO, EMPRENDIMIENTO Y EMPLEABILIDAD.

Reforzar las iniciativas de ocio educativo en este ámbito.

9. IBILBIDEA.

ASTIALDI HEZIGARRIA ETA BALIOAK.

Eremu hauetan hezten duten astialdi hezigarriko jarduketak bultzatzea: bizikidetasun osasungarri eta inklusiboa, erantzunkidetasuna, gizarte berdinezale, askotariko eta demokratikoa, guztion ongizatea, ekitatea, justizia eta gizarte-kohesioa, bizitza erdigunean jartzen duena.

10. IBILBIDEA.

ASTIALDI HEZIGARRIA ETA KONTZIENTZIA KLIMATIKOA.

Klima-alaketaren aurkako borrokarekiko eta planetaren jasangarritasunaren aldeko konpromisoa duten astialdi hezigarriko proiektu eta zerbitzuak areagotzea.

11. IBILBIDEA.

ASTIALDI HEZIGARRIA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA, BOLUNTARIOTZA ETA KOMUNITATE-GARAPENA.

Eremu hauetan hezten duten eta haur, nerabe eta gazteen partaidetza artikulatzen duten astialdi hezigarriko ekimenak sustatzea: parte-hartzea, boluntariotza, eta komunitate-garapena.

12. IBILBIDEA.

ASTIALDI HEZIGARRIA, KULTURA ETA ARTEAK.

Ohitura kulturalak eta astialdikoak eta bizi-esperientzia aberasgarriak aktibatzeke eta kulturaren eta artearen eremuetan esperimentazioa, prestakuntza, produkzioa eta sormena estimulatzeko balio duten proiektu berriak sortzea.

13. IBILBIDEA.

ASTIALDI HEZIGARRIA ETA FAMILIAK.

Familiei beren guraso-gaitasunetan lagunduko dieten gizarte- eta hezkuntza-ekimen berriak antolatzea.

14. IBILBIDEA.

ASTIALDI HEZIGARRIA UDALETAN.

Udalen lidergoaren bidez ekintza-plan bat inple-

ITINERARIO 9.

OCIO EDUCATIVO Y VALORES.

Potenciar las actuaciones de ocio educativo que educan para la convivencia, saludable e inclusiva, la corresponsabilidad, la sociedad igualitaria, diversa y democrática, el bien común, la equidad, la justicia y la cohesión social, que sitúa la vida en el centro.

ITINERARIO 10.

OCIO EDUCATIVO Y CONCIENCIA CLIMÁTICA.

Incrementar los proyectos y servicios de ocio educativo comprometidos con el cambio climático y hacia un planeta sostenible.

ITINERARIO 11.

OCIO EDUCATIVO, PARTICIPACIÓN CIUDADANA, VOLUNTARIADO Y DESARROLLO COMUNITARIO.

Fomentar las iniciativas de ocio educativo que educan para la participación, el voluntariado, el desarrollo comunitario, y articulan la participación de la infancia, adolescencia y juventud.

ITINERARIO 12.

OCIO EDUCATIVO, CULTURA Y ARTES.

Generar nuevos proyectos que sirvan para activar hábitos culturales y de ocio, experiencias vitales enriquecedoras, estimular la experimentación, formación, producción y creación cultural / artística.

ITINERARIO 13.

OCIO EDUCATIVO Y FAMILIAS.

Articular nuevas iniciativas socioeducativas con las que apoyar a las familias en el ejercicio de sus competencias parentales.

ITINERARIO 14.

OCIO EDUCATIVO EN LOS MUNICIPIOS.

Implementar un plan de acción en cada municipio, y en los barrios que proceda, desde el liderazgo de los Ayuntamientos, para apoyar los proyectos y a las entidades, con objetivos, medidas e indicadores y

mentatzea udalerrri guztietan eta dagokien auzoetan, proiektu eta erakundeei laguntzeko; garapen horiek bermatzeko, helburuak, neurriak eta adierazleak hartu behar kodituzte kontuan eta, bereziki, erakundeen egitura.

15. IBILBIDEA. **ASTIALDI HEZIGARRIA BIZKAIA, GIPUZKOA ETA ARABAN.**

Ekimenak lurraldeetako bakoitzean indartzea foru-aldundien lidergotik, proiektuak, erakunde-sareak eta eragileen prestakuntza-eskolak sendotzeko.

16. IBILBIDEA. **ASTIALDI HEZIGARRIA KALITATEZKO PRESTAKUNTZAREKIN.**

Denbora libreko eskoletatik astialdi hezigarria indartzea, ikuspegi dualeko eta egungo astialdi hezigarriaren erronka eta eskaerei erantzungo dien kalitatezko prestakuntzarekin.

en especial la estructura de las entidades para asegurar estos desarrollos.

ITINERARIO 15. **OCIO EDUCATIVO EN BIZKAIA, GIPUZKOA Y ARABA.**

Reforzar las iniciativas en cada territorio, desde el liderazgo de las Diputaciones Forales, para fortalecer los proyectos, las redes de entidades y las escuelas de formación de los agentes.

ITINERARIO 16. **OCIO EDUCATIVO CON FORMACIÓN DE CALIDAD.**

Fortalecer el tiempo libre educativo desde las escuelas de tiempo libre con una formación de calidad, con enfoque dual y que de respuesta a los desafíos y demandas del ocio educativo actual.



ASTIALDI SAREA

astialdisarea.eus | bulegoa@astialdisarea.eus